

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Besteenak ere badirenak



Xabier Etxaniz Erle

Baratzuri, Zapatari txikia, Txoritxoaren arrautza, Erregea eta gatza, Errotariaren txakurra eta Txori kantaria. Horiexek dira, bost horiek, Juan Kruz Igerabidek jaso eta moldatu dituen ipuinak bilduma berri honetarako.

“Ipuinak munduan bizi dira, herrialde bate-tik bestera mugituz, hizkuntza batetik bestera eraldatuz, laburtuz, luzatuz, beste ipuin batzuekin nahasiz”. Hauxe da liburuaren hitzaurreko lehen esaldia, eta herri ipuinen jatorri aberats bezain ugariaren berri ematen diguna. Eta aurrerago, hitzaurre horretan onartzen duen bezala, ipuin hauek “gure etxean kontatzen ditugun moduan daude idatziak”, jakinda ipuinon aldaera ugari egon daitezkeela. *Erregea eta gatza* ipuinaren bertsioen artean bada Joxe Arratibelek eskuratu zigun *Marixor* ezaguna, esaterako. Azken honetan, hitzaurrean adierazi bezala, “haren jantzia hasieran lihozkoa zen, gero zilarrezkoa, eta azkenik urrezkoa, umea emakume bihurtzeko aldaketa psikologikoa zehatzago irudikatuz”.


Ez naiz hemen arituko bost herri ipuin hauek komentatzen, gomendagarriak dira eta gure kultura hobeto ezagutzeko balio izateaz gain, gureak izateaz gain besteenak ere badira. Garrantzitsuagoa iruditzen zait, hemen bederen, ipuin hauen kontakizuna nola aurkezten zaigun liburu honetan. Alde batetik idazlearen ekarpena dugu, kontakizuna gaurkotuz eta erraztuz, amaierako formulak landuz, ipuina-

Euskal Herrietako ipuinak

JUAN KRUZ IGERABIDE

Ilustrazioak:
Elena Odriozola.
Denonartean, 2017.
55 orrialde.
Gazteentzat.

Juan Kruz Igerabide Sarasola idazlea (Aduna, 1956).



ren amaieran ageri diren esaldi horiek ederki landuz. Izan ere, aipatzekoak dira Igerabidek egindako hautaketak eta kontakizunak.

Bestetik, azpimarragarria da Elena Odriozolak ilustrazioetan egindako lana. Lau orriren neurriko irudi klasikoak, Aurelio Arteta

Errasti ilustratzailearen airea duten irudi berrituak, guztietan keinu, ukitu propioa nabari baita jolas batean bageunde bezala. Literatura horixe baita, jolasa, disfrutatzea, ondo pasatzeko ueña.

Irakurtzeko kontu errazak aurkezten zaizkigu liburu honetan, ozenki irakurtzeko modukoak, gure tradizioan murgiltzeko bidea erakusten diguten istorio eta ilustrazioen bidez irakurlea une atseginera eramango duten kontakizunak. Eta Juan Kruz Igerabidek hitzaurrean dioen bezala, “hegan egin dezatela zure irudimenean barrena, eta ernaldu bitez zure lurrean”. ■